BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

1006

EBAZPENA, 2012ko otsailaren 8koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Kulturako sailburuaren 2011ko uztailaren 7ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntzen berri ematen duena. Agindu horren bidez, fikziozko eta animazioko film luzeen eta sortze-dokumentalen publizitate eta sustapenaren aldeko diru-laguntzetarako deialdia egin zen.

AURREKARIAK

1.– 2011ko abuztuaren 29ko EHAAn argitaratu zen Kulturako sailburuaren 2011ko uztailaren 7ko Agindua, fikziozko eta animazioko film luzeen eta sortze-dokumentalen publizitate eta sustapenaren aldeko diru-laguntzetarako deialdia egiten duena.

2.– 2011ko urriaren 28ko EHAAn argitaratu zen Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen Ebazpena, 2011ko uztailaren 7ko Aginduan finkatzen den gehienezko zenbateko orokorra aldatzen duena.

3.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 49.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, laguntzak emateari edo ukatzeari buruzko ebazpenak EHAAn argitaratu beharko dira, kasuan kasuko laguntzak arautzen dituzten arauek bestelakorik esaten ez badute behintzat.

Horiek horrela,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kulturako sailburuaren 2011ko uztailaren 7ko Aginduaren babesean onuradun suertatu direnen zerrenda eta emandako diru-laguntzak (I. eranskina), eta ezeztatu diren eskabideak (II. eranskina) argitara ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 8a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

I. ERANSKINA

EMANDAKO LAGUNTZAK

Eskatzailea	Laguntza jasoko duen proiektua	Laguntzaren zenbatekoa
Sayaka Producciones SL	No controles	23.937,98
Lamia Producciones Audiovisuales SL	Nagore	17.317,45
Baleuko SL	Izarren argia	30.963,76
Irusoin SA	80 egunean	36.659,50
Moztu Filmak SL	Cuidadores	23.544,53
Moztu Filmak SL	Pedra, Piexe, Rio (Itamatatiua)	15.475,78
Dibulitoon Studio SL	Mystikal	31.339,61
Lotura Films SL	Simplemente	18.361,39
	Orotara	197.600,00

II. ERANSKINA

EZEZTATUTAKO ESKABIDEAK

Eskatzailea	Proiektua	Kanporatzearen arrazoiak
Irusoin SA	El idioma imposible	Balorazio fasean ez du puntuazioaren %50 lortu (Kulturako sailburuaren 2011ko uztailaren 7ko Aginduaren 5. artikulua)